

Badabil KORRIKA! Pasa den ostegunetik martxan dabil Euskal Herri osotik, sasi guztien gaintetik eta laino guztien azpitik, euri, txingor, edur, haizete zein eguzkipean, euskararen aldeko aldarriaren lekukoa eskutik eskura Amurriotik Donostiara. Durangaldetik barikuan pasatu zen eta momentu hauetan, Nafarroa Garaitik Nafarroa Beherako bidea egiten ibiliko da.

Benetan hunkigarria da ikustea eta sentitzea asko garela euskaraz bizi nahi dugunok. Ederra da euskaldun egiten gaituen hizkuntza hain maitatua dela ikustea, nahiz eta hainbeste maitatzetik hainbeste erabiltzerako urratsa ematea kosta batzutan. Agian, hauxe izan daiteke momenturik aproposena urrats hori ematen ausartzeko, KORRIKA bezalako ekimen honek euskara maite dugun guztiongan sortzen du zirrara. Balio dezala zirrara horrek euskararen erabileraren aldeko hautua egiteko, eman urratsa!

Harrotasuna. Harrotasuna da KORRIKAK eragiten digun beste sentimendu bat. Euskal komunitatearen parte izatearen harrotasuna, gure hizkuntzak aurrera egin dezan pausu sendoak, indartsuak eta tinkoak emanek korrika egitearen harrotasuna.

Harrotasun berbera sentitzen dugu beste herrialde batetik etorri eta gure hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko ahalegina egiten duten pertsonekin. Bereziki, gure ikastolara etorri eta gurekin euskaraz mintzatu ahal izateko euskara ikasteko ardura eta interesa hartu duzuen ikasleek eta familiek sortzen duzue guran harrotasuna.

Aukera hau aprobe txatu nahi dugu gure miresmena eta esker ona adierazteko zuei, beste herrialde batetik gurera etorri eta gurekin euskaraz aritu ahal izateko ahalegina egiten zabilzaten ikasleei, eskerrik asko bihotzez, zuek ematen diozue prestigioa gure hizkuntzari. Eskerrik asko egunero gure hizkuntza biziberritzeko ahalegina egiten duzuen ikasle, irakasle eta familia guztiei! Ekin hitzekin! Euskara ahora!
GORA KORRIKA!
GORA EUSKARA!